

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## TSJNk epea bi egunetara murriztu du Gobernuak foru-dekretuak bertan behera uzteko eskaeraren aurka jo dezan 2013tik 2015erako LEP onartuz eta suhiltzaileen 20 plaza gehituz

*Foru Gobernuak bere argudio juridikoen sendotasunean konfiantza osoa du hilaren 13rako iragarritako azterketak egin ahal daitezen*

Jueves, 04 de febrero de 2016

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak epea hamar egunetik bira murriztu du Foru Gobernuak Estatuko Abokatutzak errekurritutako bi foru-dekretuak bertan behera uzteko eskaeraren aurka jo dezan.

Sala horrek bertan behera uzteko eskaera hori ez duela onartuko uste du Foru Gobernuak, ez baitu argudio juridiko sendorik, prozedura-mailan nahiz mamiarri dagokionez; hala, suhiltzaileak hautatzeko azterketei eutsi ahal izatea espero da (hilaren 13rako iragarriak), eta bertan 849 hautagaiek parte hartuko dute. Nolanahi ere, erabaki judizialak errespetatuko dituela esan du.

TSJNk hartutako erabaki hori ostegun honetan jakinarazi zaio Nafarroako Gobernuari eta, beraz, Aholkularitza Juridikoak datorren astelehenera arte alegazioak aurkezteko epea izango du. Neurri hori hartu da Justizia Auzitegi Nagusiak hedabideen eskutik jakin duenean otsailaren 13a suhiltzaileen oposizioen lehen proba egiteko data dela, eta auzia data horren aurretik ebatzi ahal izateko asmoz.

Gogoratuko denez, Estatuko Abokatutzak errekurtsioak aurkeztu zituen honako hauen aurka: alde batetik, martxoaren 25eko 20/2015 Foru Dekretuaren aurka; haren bidez, 2013, 2014 eta 2015 urteei zegozkien lan eskaintza publiko bat onartu zen; bestetik, irailaren 9ko 233/2015 Foru Dekretuaren aurka; haren bidez, plantilla organikoa aldatzen zen eta lan eskaintza horretako plaza-kopurua handitzen zen suhiltzaileen 20 plaza gehituz.

Nafarroako Gobernuak beharrezkotzat jotzen du iritzi publikoak oro har eta Suhiltzaileen oposizioan parte hartzen duten 849 pertsonak



Nafarroako Justiziaren Jauregia.

bereziki (aspalditik deitua), salaren erabakien berri izan dezaten, lehen azterketa hori bertan behera geratzeko arriskua dagoela eta.